

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 483/2021 Erabakia, abuztuaren 3koa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrenda, Lurralde Oreakaren Sailarena, aldatzea**

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, zeinak onesten baitu Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen testu bategina, 74. artikuluan dioenez, administrazio publikoek lanpostuen zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa tresnak erabilita egituratuko dute beren antolamendua.

Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak honela dio zioen adierazpenean: "Legeak sistemaren egituraketak oinarri duen muintzat jartzen ditu lanpostu zerrendak, administrazio karrerako funtsezko elementu, lansari sistemaren ardatzik garrantzizkoen eta, batez ere, administrazio egiturak arrazoibidetzeko eragile bilakatuz. Lanpostuak eratzeko erabili behar diren funtsezko irizpideak eta prozedura bideak ezartzen ditu legeak, baina lanpostu zerrenda horiek erakundearen beharren benetako adierazpide izan behar dute beti eta horretan datza horien indarra. Ondorioz, lanpostu zerrenda horiek izaera dinamikoa dute eta horrek administrazio publikoaren helburuak betetzeak eskatzen duen etengabeko egokitze prozesuari jarraitu beharra dakar, beharrak aldatuz baitoaz".

Antolamendu egituren, eskumenen eta lanpostuei esleitutako eginkizunen berezko eboluzioak beharrezko egiten du lanpostu zerrenda era egokian moldatzea eta aldatzea eta, ondorioz, lanpostu bakoitzean jarduteko gaitasunak eta betekizunak ere bai.

Horren harira, Diputatuen Kontseiluak aurreko agintaldikoak ordezkatzeko dituzten zenbait foru dekretu onartu ditu sail bakoitzerako, haiei esleitu zaizkien eskumenak babestu eta garatzen dituen egitura organikoa eta funtzionala ezartze aldera.

Egun indarrean dagoen legediak, Euskal Funtzio Publikoarenaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 18. artikuluan 1. paragrafoan jasotakoak, arautzen du egitura organikoan eta funtzionalean aldaketak onartzeak berekin dakarrela aldi berean onartu behar izatea dagokion lanpostu zerrenda. Hortaz, lanpostu zerrendaren aldaketa horretarako, ezinbestekoa da egitura organikoaren eta funtzionalaren dekretu hori onartzea.

Erabaki honekin batera, Foru Gobernu Kontseiluan egitura dekretuen aldaketa bana aurkeztu da, onetsi daitezten. Aldaketa horiek eskatzen dute aldi berean onestea dagokien lanpostuen zerrenda.

Lanpostuak sortzeko ahalmena ematen duen aurrekontu gaitzeari dagokionez, kontuan hartu behar da zer xedatzen duen Lurralde Historikoaren 2021erako Aurrekontua betearazteko urtarrilaren 26ko 1/2021 Foru Arauak, Langileen Kudeaketari buruzko 25.2, 25.3, 25.4 eta 25.5 artikuluetan:

"Foru sektore publikoko erakundearen aurrekontu plantillaren muga erakunde horietako langile funtzionario eta lan kontratadun langile finkoen plazen guztirako agregatuari dagokio.

2021ko ekitaldian, lanpostuen zerrenda aldatzeko espedienteak honako kasu hauetan besterik ez dira onartuko: ez da gastu gehikuntzarik sortu beharko, edo sortuz gero, kasuan kasuko gehikuntza bestelako lanpostuetarako kredituak murriztuz konpentsatu beharko da eta aurretik Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren aldeko txostena beharko da.

Era berean, artikuluko honen 3. paragrafoan jasotzen den muga ez da aplikatuko Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean lau plaza sortzeko: bat, egiturazko lanpostu bat finkatzeko; beste bi, lurralde orekaren eta erronka demografikoaren arloko jarduketari lotutako funtzioak betetzeko;[...].”

Lehenik eta behin, Laguntza Juridikoaren Atalaren amortizazioari dagokionez. Lege Aholkularitza Zerbitzua bihurtzeko, LPZren ikuspuntutik, honako aldaketa hauek dakartza: Lege eta Administrazio Atalaren buruaren lanpostua (1015.001) kentzea eta, horren ordez, Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuaren buruaren lanpostua (1005.001) sortzea. Halaber, Gaikuntza Nazionalerako lanpostu bat (1144.001) sortzen da eta, ondorioz, Zuzendaritzako Idazkaria lanpostua (2043.009) kentzen da. Lanpostu hori, Letradua (1142.007) eta Toki-Administrazio Teknari Letradua (1285.002) lanpostuekin batera, Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuan berratziki dira.

Bigarrenik, laguntza-unitate berri bat sortzeari dagokionez, Tokiko eta Udalerriaz Gaindiko Azpiegituren Sustapena eta Finantzaketa Zerbitzuari atxikia, Azpiegitura, Ekipamendu, Obra eta Zerbitzuen Bulego Teknikoaren Atala deritzona. Atal hori langilez hornitzeko, honako hau sortu da, batetik, Bulego Teknikoko Atalaren burua lanpostua (1010.001). Lanpostu hori sortzeko ahalmena urtarrilaren 26ko 1/2021 Foru Arauak du, 25.5 artikuluan; beraz, ez da gastua konpentsatuko duen amortizaziorik behar. Bestalde, Laguntza Programak Kudeatzeko erdi-mailako teknikari bi (1230.002 eta 003) sortu dira eta, horretarako, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren Kontroleko goi-mailako teknikariaren lanpostua (1187.001) eta Toki- Administrazio kontabilitate eta aurrekontu administrari lanpostu hutsa (2031.002) amortizatzea proposatzen da.

Azkenik, Tokiko eta Udalerriaz Gaindiko Azpiegituren Sustapena eta Finantzaketa Zerbitzuko erdi-mailako teknikarien lanpostuei uniformetasuna emateko, izendapenak aldatzen dira, eta Atalean sortutako zuzkidura berriekin parekatzen dira. Zehazki, 1230.001, 006, 007 eta 008 zuzkidurak eraldatu dira, izendapenari soilik dagokionez: Laguntza Programak Kudeatzeko erdi-mailako teknikaria.

Kendutako lanpostuak I. eranskinean sartu dira, lanpostuak sortzeko proposamena II. eranskinean eta III. eranskinean, izena aldatu zaien lanpostuen zerrenda.

Interesdunei entzuteko izapidea egin da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Alegazio izapidea bete da eta negoziazioa gauzatu da sindikatuetako ordezkariekin, honako arau hauek xedatutakoaren arabera: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, zeinak onesten baitu enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua, eta Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, zeinak arautzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua.

Arauzko txostenak ikusita eta horietan oinarrituta, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren,

#### ERABAKIA

Lehenengoa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrenda aldatzeari, ondoren xedatutakoaren arabera:

- I. eranskinean jasotzen diren lanpostuak kentzea.
- II. eranskinean jasotzen diren lanpostuak sortzea.
- III. eranskinean jasotzen diren lanpostuen izena aldatzea.
- IV. eranskinean, Letradua (1142.007) eta Toki-Administrazio Teknari Letradua (1285.002) lanpostuak Lege Aholkularitzako Zerbitzu berrian berratzikitzea.

Bigarrena. Erabaki honek Gobernu Kontseiluak onetsi ondorengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, ALHAOn argitaratzen den eguna gorabehera.

Hirugarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo bestela, berraztertzeko errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen erakundean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua-rekin lotuta.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abuztuaren 3a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*

**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**

*Funtzio Publikoko zuzendaria*


**ADOLFO LANDER VERA**

KODEA	IZENA	MOTA		DED. ERREG.		JARD. JARD. ERA.		BET.		LANPOSTUEN JARDUTEKO BALDINTZAK						LANTOKI/HERRIA
		BZT.	EZORD.	PREST	JARD.	JARD.	ERA.	ADM.	TALDEA	ATXIKIPENA		LANPOSTUEN JARDUTEKO BALDINTZAK		ORDAINSARIAK		
										ESKALA	IKASKETA	ESKALA	IKASKETA		HIZKUNTZA	
		JARD.	JARD.	ERA.	ADM.	TALDEA	APIESKALA	TITULUA	ESKAKIZUNA	EZAGUPENAK	MAILA	OSAGARRIA				
<b>10 Saila LURRALDE OREKA</b>																
<b>10.2 Zuzendaritza LURRALDE OREKA</b>																
2043.009	ZUZENDARITZAKO IDAZKARIA	EB	B	2	I	AFA	C 1	12					2	17	20.558,55	VITORIA-GASTEIZ
31/12/2009																
<b>10.2.02 Zerbitzua TOKI ADMINISTRAZIOA ETA LARRIALDIAK</b>																
<b>10.2.02.1 Atala LAGUNTZA JURIDIKOA</b>																
1015.001	LEGE ETA ADMINISTRAZIO ATALAREN BURUA	B	B	L	L	AFA	A 1	1	240	200	27		4	27	41.025,30	VITORIA-GASTEIZ
240																
<b>10.2.03 Zerbitzua TOKI ETA UDALERRIAZ GAINDIKO AZPIGITUEN SUSAPENA ETA FINANTZAKETA</b>																
1187.001	OBRA ETA ZERBITZUEN FORU PLANAREN KONTROLEKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA	EB	B	L	L	AFA	A 1	211	260	200	25		3	25	32.092,65	VITORIA-GASTEIZ
<b>10.2.04 Zerbitzua TOKI FINANTZAKETA ETA ADMINISTRAZIO KUDEAKETA</b>																
2081.002	TOKI ADMINISTRAZIOKO KONTABILITATE ETA AURREKONTU ADMINISTRARIA	EB	B	L	L	AFA	C 1	12					2	17	19.692,30	VITORIA-GASTEIZ
<b>Lanpostu Totala: 4</b>																

Literalen taula, ALHAOn (27 zk.) argitaratutakoa, 2019ko martxoaren 4an

PAG. 1

KODEA	IZENA	MOTA	DED.ERREG.			BET. ERA.	LANPOSTUEN JARDUTEKO BALDINTZAK				ORDAINSARIAK			LANTOKI HERRIA	
			BZT.	EZORD. JARD.	PREST. JARD.		ATXIRUPENA	ESKALA	IKASKETA	HIZKUNITZA	BERARIAZKO EZA	D.O	BERARIAZKO OSAGARRIA		
															ADM.
<b>II. ERANSKINA</b>															
<b>LANPOSTUEN ZERRENDA LANPOSTUAK</b>															
<b>SORTZEA</b>															
<b>10 Saila LURRALDE OREKA</b>															
<b>10.2 Zuzendaritza LURRALDE OREKA</b>															
<b>10.2.05 Zerbitzua LEGE AHOLKULARITZA</b>															
1005.001	AHOLKULARITZA JURIDIKOKO ZERBITZUAREN BURUA	B	B	3	IA	EAE	A 1	1	240	240	4	200	28	47.710,35	VITORIA-GASTEIZ
1144.001	TOKI ERAKUNDEETAKO AHOLKULARIA	EB	B	L	GN	A 1	32	240	240	4	200	25	33.073,35	VITORIA-GASTEI	
<b>10.2.03 Zerbitzua TOKIKO ETA UDALERRIAZ GAINDIKO AZPIEGITUREN SUSAPENA ETA FINANTZAKETA</b>															
<b>10.2.03.1 Atala AZPIEGITURA, EKIPAMENDU, OBRA ETA ZERBITZUEN BULEGO TEKNIKOKO</b>															
1010.001	BULEGO TEKNIKOKO ATALAREN BURUA	B	B	2	L	AFA	A 2	212	317	321	3	200	23	40.563,60	VITORIA-GASTEIZ
1230.002	LAGUNTZA PROGRAMAK KUDEATZEKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA	EB	B	L	AFA	A 2	212	317	317	01017021	3	200	21	26.343,15	VITORIA-GASTEIZ
1230.003	LAGUNTZA PROGRAMAK KUDEATZEKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA	EB	B	L	AFA	A 2	212	321	321		3	200	21	26.343,15	VITORIA-GASTEIZ
<b>Lanpostu Totala:</b>														<b>5</b>	



**III. ERANSKINA**  
**LANPOSTUEN ZERRENDA**  
**IZEN ALDAKETA**

KODEA	IZENA	MOTA	DED.ERREG.		BET. ERA.	LANPOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK				ORDAINSARIAK			LANTOKI HERRIA
			BZT. JARD.	EZORD. JARD.		ADM.	TALDEA	ATXIKIPENA	ESKALA	IKASKETA TITULUA	HIZKUNTZA ESKAKIZUNA	BERARIAZKO EZAGUPENAK	

**10 Saila LURRALDE OREKA**

**10.2 Zuzendaritza LURRALDE OREKA**

**10.2.03 Zerbitzua TOKIKO ETA UDALERRIAZ GAINIKO AZPIEGITUREN SUSTAPENA ETA FINANTZAKETA**

1230.001	LAGUNTZA PROGRAMAK KUDEATZEKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA	EB B	L	AFA	A 2	212	317	3	200	21	26.343,15	VITORIA-GASTEIZ
1230.006	LAGUNTZA PROGRAMAK KUDEATZEKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA	EB B	L	AFA	A 2	212	317	3	200	21	26.343,15	VITORIA-GASTEIZ
1230.007	LAGUNTZA PROGRAMAK KUDEATZEKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA	EB B	L	AFA	A 2	212	317	3 31/12/2006	200	21	26.343,15	VITORIA-GASTEIZ
1230.008	LAGUNTZA PROGRAMAK KUDEATZEKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA	EB B	L	AFA	A 2	212	321	3 01/01/2011	200	21	26.343,15	VITORIA-GASTEIZ

**Lanpostu Totala: 4**

Tabla de Literales publicada en el B.O.T.H.A nº 27, de 4 de marzo de 2019.

PAG-1



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren  
eta Foru Administrazioaren Saila  
Departamento de Fomento del Empleo, Comercio  
y Turismo y de Administración Foral

Funtzio Publikoko Zuzendaritza  
Dirección de Función Pública

## IV. ERANSKINA

BERRATXIKIPENA	
ATXIKIPEN BERRIA	
10.2.02.1 LAGUNTZA JURIDIKOAREN ATALA	10.2.05 LEGE AHOLKULARITZAKO ZERBITZUA
1142.007 Letradua	
1285.002 Toki-Administrazioako Teknikari Letradua	